

1998: URTEAREN ERREPASOA HILEZ HIL


Arrasate

1998ko
Abenduak 24
484. zenb.



IKUSPEGIA
J.M. VELEZ
DE MENDIZABAL
ELKARRIZKETA
XABIER
MENDIGUREN
KIROLAK
SANTAMAS
KROSA

Horra, gure Olentzero



1999

GABON ZAHARREKO KOTILIOIA

*Urdaiaspikoa
eta Solomo Iberikoa
Zainzuriak bi saltsatan
Foie Hotza
Sagar Purearekin
Vieira Txangurroz Betea
Otarraintxoak Plantxan*

*Salda Perezeko Ardoan
Kantauriko Legatz
Gorenak Arrainparrilan*

*Solomillo Zentrua
Bere Lagungarriekin
Errioxa Ardo Erara*

*Banilla Txoskidun Tarta
eta Masusta Gorriko
Couliaak*

Gabonetako Turroi Aukera

*Ardoak:
Etxeko Krianza Beltza
Gran Feudo Chivite Ardo
Gorria
Cava: Bossuet
Kafea*

**Dantza: Ongi etorri
1999**

*Prezioa: 8.750 pta.
(BEZa barne)*


**HOTEL
MONDRAGON**
**

Biteri Etorbidea, 16
Tel.: 943 71 24 33



Nochebuena, 1999an ote?

Berriz ere huts egin dut eta badoaz horrelako hamaika. Ez dakit inoiz erdietsiko ote dudan baina, behintzat, ahalegin-etan jarraituko dut, esperantzaz zut, egunen batean nire amets ezaguna gauzatuko delakoan. Ez dut federik galdu, arrasatear herriak askoz helburu garaigoetarako mekanismo ugari badituela komentzituta.



J. M. Velez de Mendizabal

Lehengo astean, Radio Vitoria-n aritu nintzen, Gabon inguruko ohiturei buruzko solasaldi goxo batean. Tertuliakide batek inbidia sortarazi zidala aitortu behar dut eta horrela adierazi nion berari ere, mikrofonoa zabalik, Zuia ibarreko esperientzia ederraz ari ginelarik. Cayo Luis Veja-Murgia adiskideak "Gabon bideko Jaia"-ren zehazkizunak azaldu zizkigun, hau da, azken hogeita bost urteotan abenduaren 25ean

Noiz antzeztuko da Arrasaten Barrutiaren lan bikaina?

Sarrían antzezten den ekitaldia. Cayo Luisek berak idatzitako testuak Luis Aranburu gasteiztarrek musikatu zituen, hain zuzen ere hogeita hamar bat etxe zituen herriko biztanleen lankidetzaz zuzenarekin. Eta ekitaldi hura ohitura bilakatu da, mende laurden baten buruan.

Herenegun, Gernikako kaleetan "Marijesiak" abestu ziren, ertaroko literaturaren hainbat eredutan sustraituta diren eguberri antzezpenean antzera. Eta Arrasaten? Noiz jabetuko gara, Gabon giroaz sekula euskaraz idatzitako antzezlantzerena, hemen gure herrian bertan eszenifikatzeko sortu zenaz? Pedro Ignazio de Barrutiari nagokio, noski, eta XVIII mendeko lehen laurdenean hark gerturiko "Acto para la Nochebuena"-ri. Ene ustez, Arrasateko eskribaua izan zen arrasatear-aramaioar

horren bidez euskal literaturari gure herritik egin lekiokoen omenaldirik beroen eta modernoena litzateke. Eta modernoa diot, antzezlantzeren egundoko ahalbidea baitu, uneko nolakotasunei behar bezalako erantzun aurrerakoia emateko.

Euskal kulturako edozein adierazleren euskarri bikaina izan den gure herri honetan —eta badakit herria pertsonok eta gizatalde konkretuek egiten duguna— beste urrats berri bat egin beharoko litzatekeela deritzait, bere jai-egitarauan eta urteroko maiztasunez Barrutiaren obraren antzezpenean gauzatzeko. Orain dela hirurehun urteko arrasatear haiek gozatu zutena guztion plazererako partaidetza aktiboarekin berreskuratzea litzateke helburu bikaina.

Badira urte asko lelo berdinarekin ari naizela, nire hitzak kai onera oraindik iritsi ez direlako. Baina, hasieran nioen bezala, ez dut itxaropena galdu eta, agian, Barrutiaren heriotzetik 240 urte beteko diren 1999ak ekarriko dit ezusteko alai eta gozoa.

"Arrasate aldatua ikusten dut, baina hoberako. Biziago ikusten dut. Lehen, orain hogeita bat urte, agian langileagoa zen eta monastegi kutsu handiagoa zuen. Gaur egun, berriz, orekatuago ikusten dut"

Xabier Mendiguren

33

33 milioi pta. inbertituko du udalak auzoetan

Geroz eta hurbilago dugun 1999an Arrasateko Udalak 33 milioi pta inbertituko ditu herriko auzoetan. Aurten baino %32 gehiago, alegia. Baserri bideetarako, aldiz, 20 milioi pta joango dira. Baserri bide guztiak bukatuta geratuko lirajteke horrela.

ITURRI ONETIK

Leibar Leizea

Gehienok entzun dugu Leze-Txiki kobazuloaz hitz egin, baina gutxi edo ezer ez dakigu Leibar leizeaz.

1965ean Jose Miel Barandiaran, Jesus Altuna eta arkeologo talde bat indusketa lanak egiten ari ziren Leze-Txikin. Hamargarren kanpaina amaitzeaz zegoen.

Abuztuaren 23an, lanak bukatzeko zorian zirela, haitzulo bat agertu zen beheko partean eta hantxe Leze-Txiki ospea eman dion besahezur famatua. Jose Migel Barandiaranek "Leibar leizea" deitu zion, egun hartan Felipe Leibar laguntzaile gesalibartarraren urtebetetzea zelako. Horrela dago idatzita Aranzadi elkartearen aldizkarian, nahiz eta azken aldi honetan arkeologo gazteek aipatu ez. Jesus Altunak orain hurrengo berretsi duen moduan, beheko kobari "Leibar leizea" deritzo.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjé Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 79 02 26)

Diseinua: Txos Azurmendi. **Asteburuetako berriak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre.

Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Arriola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirretxe, Juan Luis Azkarate, Aitor Ordoñaga, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Besaide M. E., Kamelko Uribarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arribu, Jose Mari Aslagarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konertzatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joxe Mari Gallastegi Etxeberria.

Arrasateko Udaleren laguntza
 Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

24

osteguna

■ OLENTZERO KALERA

Goizean Txoronpio eta Txorontzia arituko dira kale-tik zehar. 18:00etan Olentzero aterako da Zaldibartik. Ibilbidea honako hau izango da: Zaldibar, Portaloia, Zarugalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Herriko Plaza. 19:30etan agurra izango da. Mutil dantza eta herri dantza dantzatuko dira herriko plazan.

■ KALE AGERRALDIA

Amnistiaren Aldeko Batzordeak kale agerraldia deitu du Olentzeroren kalejiraren ondoren.

■ GAZTAINERRE JANA HOTELEAN

Goikobalu abesbatzaren kantak entzuteko aukera eskaintzen du Mondragon Hotelak antolatu duen gaztainerre janak. Gaztainak arratsaldeko 17:30etan egongo dira erreta eta hoteleko terrazan jan ahal izango dira.

25

ostirala

■ ZINEA

Mulan, Alai zineman, 17:00etan eta 19:30etan. *Un mundo a su medida*, 22:00etan.

■ EUSKAL PRESOEKIN BAT

Euskal Presoak Euskal Herrira Orain Gazte ekimenak kontzentrazio isila deitu du arratsaldeko 19:30etarako. "Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean herriko plazan bilduko dira. Kontzentrazioaren ostean atxikimenduak egingo dira.

■ JAIALDIA GAZTETXEAN

Amnistiaren Aldeko Batzordeak jaialdia antolatu du Gaztetxean, "Euskal Preso guztiak Euskal Herrira orain" lelopean. Gaueko 22:00etan hasiko da.

26

larunbata

■ ZINEA

Mulan, Alai zineman, 17:00etan eta 19:30etan. *Un mundo a su medida*, 22:00etan.

■ GABONETAKO KONTZERTUA

20:00etan, San Joan Parrokian, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Aitor Olea organujoleak eta Naroa Enekotegi mezzosopranoak.

■ ARETO DANTZAK

Larunbatero, gaueko 24:00etatik aurrera, areto dantzak. Mondragon Hotelean. Egun horretan mus txapelketa jokatu da.

■ LANGRAITZERA IBILALDIA

Arrasateko eta Aretxabaleko Amnistiaren Aldeko batzordeek ibilaldia antolatu dute Langraitzera, Pedro Guri-di eta Kepa Urria presoen alde. Ibilaldia patio orduan helduko da eta txalaparta, trikitixa... joko dira, haiei elkartasuna adierazteko. Ibilaldia 10:15etan aterako da Arbola-petatik eta 10:30etan Azbetitik (Aretxabalea). Autobusez joateko Etxerat-en edo Aretxabaleako Urbeltzen eman daiteke izena.

27

igandea

■ ZINEA

Mulan, Alai zineman, 17:00etan. *Un mundo a su medida*, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KULTUR ERROTAREKIN BUELTAN

Patxi Kaleko folk saioa, Furunda eta Sorotan Beleko kideekin eta Petti arituko dira Amaia Antzokian, Kultur Errotaren bigarren ekitaldian. Saioa arratsaldeko 19:30etan izango da eta 300 pta. kostako da.

28

astelehena

■ ZINEA

Mulan, Alai zineman, 19:00etan. *Un mundo a su medida*, 21:30etan.

■ MANASLU ARGAZKIETAN

Iñurrategi anaien ikusentzunezko saioa: *Manasluneguigoera* eta *Gailurra Dhaulagirin*, Amaia antzokian izango da, 20:00etan.

29

asteartea

■ ZINEA

Mulan, Alai zineman, 19:00etan. *Un mundo a su medida*, 21:30etan.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Jili Jili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

30

asteazkena

■ ZINEA

Mulan, Alai zinema, 17:00etan. *Un mundo a su medida*, 21:30etan.

■ GABON KANTAK

Iturbide egoitzako abesbatzak emanaldia eskainiko du Gabonen inguruan, egoitzan bertan. Saioa arratsaldeko 17:00etan izango da.

■ IPUIN KONTAKETA

Pello Añorgaren ipuin kontaketa entzuteko aukera izango da 17:00etan, 3-4 urte arteko umeentzat eta 17:30etan, 5-6 urte arteko umeentzat. Ipuin saioa Monterongo haur liburutegian izango da.

31

osteguna

■ BANDAREN KALEJIRA

11:30etan, Arrasate Musi-kaleko Bandaren kalejira izango da.

13:00etan, berriz, Amaia

antzokian Arrasate Musikal Bandaren kontzertua.

■ MOBILIZAZIO EGUNA

Amnistiaren Aldeko Batzordeak mobilizazio eguna antolatu du. 13:00etan Batzordearen txosnan Herriko Errepresaliatuen aldeko brindisa egingo dute.

■ BINGO BEREZIA

Gabonetako Bingo berezian jokatzeko aukera izango dute Iturbide egoitzakoek egun honetan. Jokoa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

■ KOTILIOIA HOTELEAN

Urtea ondo amaitzeko kotilioia antolatu dute Mondragon Hotelean. Izen ematea ordua arte egongo da zabalik. Bestela, 943 71 24 33ra dei daiteke.

29

asteartea

■ ERREGEAK ITURBIDEN

Gabonetako opariak jasotzeko Erregeak iritsiko dira Iturbide egoitzara. Ekitaldia arratsalde partean izango da.

■ HORMIRUDI LEHIAKETA

AED elkarteak bazkide kanpaina burutzeko asmoa duela eta, horretarako antolatu duen hormiduri lehiaketan parte hartzeko epea luzatu du. "Ametsa Eraikiz Doa. Egin zaitez bazkide AED" lelopean aurkeztu beharko dira lanak urtarrilaren 15a baino lehen AEDren egoitzan.

■ MARGO ERAKUSKETA

Estibaliz Ormaetxea margolariak bere margolanen erakusketa ireki du Aretxabaletako Durana aretoan. Lanak urtarrilaren 6a arte egongo dira ikusgai. Ordutegia, astegunetan 18:00etatik 20:30etara eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara.

■ ZABOR BILKETA

Abenduaren 24an eta 31n, zabor bilketa arratsaldeko 14:00etara aurreratu da. Hori dela eta, zabor poltsak behar den tokietara atera beharko dira 13:00etatik 14:00etara.

■ IPUIN KONTAKETA

Pello Añorga ipuin kontalaria arituko da Monterroneko haur liburutegian abenduaren 30ean, asteazkena. Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da 3 eta 4 urteko haurrentzat. 5 eta 6 urteko haurrek, berriz, 17:30etan izango dute Pelloren ipuinak entzuteko aukera.

■ ARRASATE 98 LEHIAKETAK

AEDk aurtengo literatura lehiaketak antolatu ditu. Komikia, Leintz eta Ugarran baileratako euskararen testigantzak, irrati-erreportajeak, ipuina, poesia eta bertso-papera lehiaketak antolatu ditu AEDk. Lanak aurkezteko epea otsailaren 26an amaituko da eta Pablo Uranga kaleko etxera eramane beharko dira.

■ BAI EUSKARARI

Abenduaren 26an egingo den jaialdira joateko autobusa jarri du AEDk. Izena eman ez duenak, AEDtik edo Iturritz tabernatik pasa daiteke, lehenbailehen. Bestalde jakin dagoeneko salgai dagoela Bai Euskarari kanpainaren materiala. AEDn aurkitu ahal izango dituzue elastikoak, txiskeroak, pegatinak eta bestelakoak.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

NAROKI
LIBURUDENDA
BITXITEGIA

%5 %10 %20
Beherapenak!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 24

• Gaeuz eta egunez: Morales, S. Andres.

Ostirala, 25

• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías.

Larunbata, 26

• Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz

Igandea, 27

• Gaeuz eta egunez: Korquera, Musakola.I

Astelehena, 28

• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erquin

Asteartea, 29

• Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina

Asteazkena, 30

• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde

Osteguna, 31

• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala

ZORIONAK!

Arrasate Pressi. Hamar urte betetzen dituela eta, zorionak emanez ekin nahi diot gutunari, bide batez, gure bailaren euskararen zuztapenerako izan diren hainbat urratsen aipamena eginez.

Orduko Arrasateko ikastolaren "Epe Luzerako Plana: 1975-1980" dokumentuak argi asko jasotzen ditu elebitasunak haurren garapenean sortarazten dituen, eta gaur egun hain aipatuak diren, onura eta abantailak. Plan honen helburua gure bailarako irakaskuntza euskalduntzea zen eta lortu ere, lortu du: 1998/99 ikasturtean 10 ikaslelik 7 dabilta D

ereduan, hau da, euskara hutsez ikasten. Ez dira ez, zoritxarrez, zenbaki hauek toki askotan ikusten.

Neurri handi batean, ikasletolek gure bailaran izan duten eta gaur egun ere duten indarrari (98/99 ikasturtean Leintz Bailaran 10 ikaslelik 6tik gora dira gure proiektua aukeratu dutenak) eskertu behar diogu egoera honetara heldu izana.

Baina hau guztiau ez litzateke nahikoa izango euskararen gizarteratzea lortu izan ez balitz. Horixe izan da, hain zuzen, AEDren zeregina.

Helburu horren lorpenerako AEDk bultzatu duen ekimenik garrantzitsu eta eraginkorrenetarikoa, ene

ustez, Arrasate Press izan da. Herri komunikabideen esparruan aitzindari izan den aldizkari honek, euskara herriko familia guztietara hedatzea lortu du eta hori oso garrantzitsua da.

Beraz, ekimen honen erditzean gure lankidetzak eskaini genion guztiok, orduan proiektu honetan buru-belarri ibili zirenei, gaur egun hortxe murgilduta lanean dabilzane eta, hurrengo urteetan parte har dezaketene jende gazte eta ez hain gazteei, denoi, zorionak eta urte askotarako!

Joxerra Zubizarreta
Hezibideko komunikazio arduraduna

FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTRUA
98-99 IKASTAROAK • 2. Hiruhilabetea

Ordutegiak goizez, arratsaldez eta gaeuz.

GOIZEKO IKASTAROAK

- Autoestima Ikastaroa
- Dantzak
- Tapiza, makrame eta farfalgintza
- Harizko lanak (Bainikak)
- Eskulanak

ARRATSALDEKO IKASTAROAK


- BEZ (IVA) eta IRPF zergei buruzko azalpenak
- "RAKU" zeramika
- Tapiza, makrame eta farfalgintza
- Pintura eta marrazkia
- Puntua, gantxilo eta gurutz puntua
- Jantzigintza
- Oinarrizko ingelesa
- Lorezaintza
- Bizkar hezurreko giharren indartzea

GAUEKO IKASTAROAK

- Apainketarako ohialgitza
- Norbera zaintzeko ikastaroa
- Harizko lanak (Bainikak)
- Tapiza, makramea eta farfalgintza
- Pintura eta marrazkia
- Literatura ikastaroa

Ikastaro hasiera urtarrilaren 7an

kutxa fundazioa
fundación



ANIMA ZAITEZ!
INFORMA ZAITEZ!



famili eta gizarte-hezkuntzarako zentruak
centros de formación familiar y social

Santa Teresa, 12 • Tel.: 943 79 04 59 / 943 79 56 40 • ARRASATE

Herri aldizkariak ordaintzeko prest egongo zinake? Zenbat?



Serala Arrieta
(20 urte)
Ikaslea

Bai, denok ordainduko bagenu. Ez dakit, beste edozein aldizkarik balio duen beste.



Jon de Andres
(6 urte)
Ikaslea

Ez dakit. Irakurri egiten dut, baina ez dakit zer egingo nukeen.



Bittori Blanco
(18 urte)
Langabea

Bai, 200 pta. edo ordainduko nituzke.



Markos Alonso
(23 urte)
Langilea

Prezinoa zenbatekoa den ikusi beharko nuke, baina 200 pta. edo ordainduko nituzke.



Angel Gonzalez
(35 urte)
Langilea

Nik neuk ez ditut asko irakurtzen herri aldizkariak, baina interesa izanez gero, erosiiko nuke.



Bittor Salaberri
(38 urte)
Langilea

Bai, erosiiko nuke. Ez dakit zenbaten saltzen diren edo bateren bat saltzen den, baina 200 pta. bai.



Pilar Iriarte
(65 urte)
Etxekoandrea

Bai, baina ez dakit zenbat ordainduko nukeen, 200 bat pta. edo.



Modesto Gartzia
(26 urte)
Langilea

Bai, zergatik ez? Prezinoa orrien kopuruaren arabera, 150 pta. gutxi gorabehera.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

**Ea zer ekartzen dizuen Olentzerok,
eta ondo hasi urtea!!**

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Spek
Denda



Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

Hiru mondragoetar penintsulako espetxeetara

Joan den ostiral iluntzean jakin zen Espainiako Barne Ministerioak erabaki bat hartu zuela, 21 euskal preso penintsulako espetxeetara ekartzeko. Gehienak Ceutan, Melillan, eta Kanariar Uharteetan zeuden.

Penintsulara ekarriko zituztenen artean hiru mondragoetar daude: Jon Agirre Tenerifeko espetxetik Huelvara eramango dute. Gabriel Urizar "Gautxori", berriz, Tenerifeko espetxetik Jaenekora eta Jesus Mari Zabarte "Garratz" Las Palmas de Gran Canariatik Huelvara.

Barne Ministerioaren erabakiak oso harrera eskasa izan du alderdi politikoen artean. Gehienek, gutxiagitzat jo dute.

Senda proiektua lan prozesuak hobetzeko

Mondragon Unibertsitatea "Senda" proiektua lantzen ari da, Arrasateko beste bi enpresarekin batera: LKS Aholkulariak eta Mondragon Sistemak enpresekin. Hauetako bakoitzak kostuen %10 ordaintzen du. Gainerakoa Eusko Jaurlaritzak ipini du.

MUKo Informatika Sailean Osane Lizarralde eta Txema Perez informatikariak lanean ari dira urtariletik "Senda" proiektuan. Proiektu honen helburua da bezeroari bideratutako zenbait administrazio prozesu aztertu eta hobetzea. Segida uzango du, enpresa batean gauzatuz.

Presoen senitartekoez ere etsipena azaldu dute.

Aste honetan, bestalde, Mikel Pie de Hierro iheslari musakolarren argazia jaso dugu. Mikel Pie de Hierrok 18 urte zituela alde egin zuen Mondragoetik. 28 urte darama herritik alde eginda. Azken hamarrak Mexikon igaro ditu.

GAZTE EKIMENA

Mondragoeko Euskal presoen aldeko Gazte Ekimenak prentsaurrekoa eman zuen astelehenean Gabonetarako mobilizazioetarako deia zabaltzeko, bereziki abenduaren 25ean arratsaldeko 19:30etan herriko plazan egingo den kale gerraldi ixilerako. "Euskal pre-



Mikel Pie de Hierro musakolarra Mexikon dago.

soak Euskal Herrira Orain" leloa da gazte talde honen oinarria. Euskal presoek eta euren senideek pairatzen duten

egoerak kezkatuta, herriko 40 bat inguru gazte talde eta elkarre dabilta lanean gai honen inguruan.

Gaztetxea zalantzan

Pasa den ostiralean, pintadak agertu ziren herriko zenbait hormatan. Gaztetxearen aldekoak ziren. Udalaren kontrako salaketak ere bazeuden. Pintadak ez ditu inork bere gain hartu, baina gaztetxea aipatzen zenez, hara joan ginen zer gertatzen den jakiteko asmoz. Gaztetxeako Gazte Asanbladako kideek jakinarazi zigutenez, arazoak datoz orain Gaztetxea dagoen lokala, udalak kultura elkarte bihurtu nahi duelako. Izan ere, udalak proiektu hau eratzeko orduan, ez omen die inolako kontsultarik egin ezta bestelakorik proposatu ere. Era berean, Gazte Asanbladakoen esanetan, badakite bi milioi



Gaztetxeako jendeak ez du etorkizuna bat ere garbi ikusten.

pta. erabiliko dituztela gaztetxearen antolamendurako, baina euren ez omen diete ezer

galdetu eta ez dute oraingo gaztetxearen kideen partaidetza eskatu.

Gabonetan

den-dena aurkituko duzu ...



Zorionak eta urte berri on

DENDARABA

CENTRO COMERCIAL VITORIA GASTEIZ



eta

bai&by



CIMek hizkuntz irakaskuntzako **25 urteko** eskarmentua, heziketarako enpresa egitasmoa eta zure edozein beharretara moldatzeko gai den zerbitzu malgua eskaintzen du.

Araba hiribidea,4 - **Arrasate**

Tel: 943 - 712055 - Fax: 943 - 712181

Olakua, 14 - **Oñati** - Telf: 943 - 716000 • E-Mail: empresas@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>



CIMen enpresa egitasmoaren bilakaera logikoan oinarrituta, bai&by-k azken teknologi baliabideak eta emaitzak bermatzen dizkizun sistema dituen **ingeles eta euskara** ikasteko multimedia metodo modernoa eskaintzen du.

Bikote honek
zer esan asko
emango dizu...

**INGELESEZ ETA
EUSKARAZ**

CIM eta bai&by k hizkuntz irakaskuntzaren munduko **bikoterik erakargarriena, sendoena eta osoena** osatzen dute.

¡ Ingelesa eta euskara ziztu bizian !

astea bi hitzetan

■ Txanogorritxu txotxongilloa

"Gorakada" Durangoko antzerki taldearen eskutik, "Txanogorritxu" txotxongilo antzeztu zen igandean Amaia Antzokian. Lan honek daukan berezitasunik nabarmenena da otsoa pertsonaia ona dela eta magia erakusten diola neskatilari.

■ Presoen alde

Giza Eskubideen 50. urteurrenean hasi, abenduaren 10ean, hain zuzen ere, eta pasa den ostirala arte, zenbait taldek bultzatutako hainbat ekintza izan ziren herrian presoen alde. Besteak beste, astelehenean udalbatzak Senideak-en mozio bat onartu zuen. Astearte goizean, barrikadak izan

ziren Eroski eta Muxibarko biribiletan presoen eskubideak aldarrikatzen. Asteazkenean kale agerraldiak izan ziren. Ekimen hauei amaiera emateko, ostiralean hiriburuetan mobilizazioak egin ziren.

■ Zentral eolikoak

Deba Garaiko Mendizale Elkartek, Eguzkik, Ekik eta Arrasateko Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak, energia eolikoari buruzko mahai inguru antolatu zuten ostegunean. Elgea-Urkillako mendizerran, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen zentral eolikoak eraikitzeke proiektuari buruzko aldeko eta kontrako argudioak eztabaidatu ziren udaletxeko

osoko bilkura aretoan. Proiektu hau gelditu dago orain, lurralde antolakuntzaren arabera Elgean ezin baita elektrizitatea sartzeko instalaziorik egin, baina baita lortu bezain laster, abian jarriko da eta hiru hilabeteren buruan, zentrala amaituta egongo da.

■ ONCEren ekitaldiak

Gipuzkoako ONCEk bi ekitaldi antolatu zituen larunbatean Amaia Antzokian. Alde batetik, itsuen irakurketa eta lanerako materialen erakusketa izan zen. Bestetik, "Alaiak", ONCEko Gipuzkoako Abesbatzak, kontzertua eskaini zuen. Ferrerías kalean ireki berri duten etxea ere aurkeztu zuten.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

Ostiralean hiru hilabetez luzatuko diren eskola antzerki jardunaldien lehenengo ekitaldia izan zen. Arrasateko 700 ikaslek baino gehiagok, Panta Rhei antzerki taldearen "Kattalin" antzerki saioa ikusi zuten Amaia Antzokian. Jardunaldiok, urtarrean izango dute jarraipena beste bi antzerki emanaldi eta txotxongilo erakusketa batekin. Jardunaldiak martxoan bukatuko dira DBHko lehenengo zikloko ikasleek prestatutako antzerki lanen aurkezpenarekin.

“ Euskal gatazka da herri honen zati handi baten identifikazio eza Estatutu edo Konstituzio modelo batekin eta hori bideratu egin beharra dago. Elkarbizitzarako eredu bat bilatu behar da terrorismoaren erauzketa ekarriko duena, baina ez hori bakarrik. Hori konponduko da denok esparru egonkor bat adosten dugunean. Konstituzioa aldatzeaz hitz egiten da, baina aurretik ikusi egin behar da zer nahi dugun”.

JABIER RETEGI

El Pais, 1998.12.20

NAROKI
LIBURUDENDA

Zure oparia
hemen aurkituko
duzu!!

NAROKI
BITXITEGIA

Opari bat
erosketa
bakoitzeko
ZATOZ!

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



BITXIKERIA

Kontxo! Gizon brusaduna gantxilloa egiten! Ez dugu askotan ikusi, ezta? Gregorio Garaik jakinarazi zigunez, oster, antzina normala omen zen.

PANTXIKA

Santamasetako erregina bera izan zen. Zozketa irabazi zuena ere poz-ozik geldituko zen hark emandako txorizo eta bestelakoekin. Hori bai, argazkian dagoen bezala ikusita, ez zuen jateko gogo handiegirik ematen.



ERRAMINTAK VS. BEGILUZEAK

Lau Bide plazan ere trepeta bitxiak aurkitu genituen, eta baita begiluzeak makinei begira. Kasu honetan haragia pikatzeko makinari begira harrapatu genituen hauek. Ez zegoen martxan, bestela...

ASTOAK ERE BAI

Astoric ere hurbildu zen ganadu feriara. Zaldien ondoan jarri zituzten arren, jende asko hurbildu zen ikusminak eraginda desagertzeaz dagoen belarri luzedun lau hankadunarengana. Honek ere bazekien zerbait, begira bestela ze tristura aurpegia duen!



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

KOADRILA MUSIKALA

Jo eta jo ibili ziren herriko txistulariak. Santamasak, euskal kulturarekin lotutakoak izanda, ezin falta txistuaren doinu goxoa!

HAMARRETAKOIA

Goizak luze jotzen du batzuetan, batez ere hotza egiten duenean. Horrelakoetan mokadu batek ederki goza lezake asperdura.



KALITATEZKO PINTXOAK

Hantxe eduki zuten txahala hamabost orduz erretzen. Orduerdiro buelta ematen zioten, alde biak ondo egiteko. 317 kiloko txahala Irunetik ekarri zuten. Guztira 1.500 pintxo saldu zituzten. Okela, gainera, Eusko Labelduna. Ezin hobeto!



MMMM, ZEIN GOXOA!

Presaka zebilen gizona, taloa eta txorizoa noiz jango. Badirudi behetik gora usain ederra zetorkiola, ezta?

HAU HOTZA!

Kale giroa beroa, baina eguraldia hotza izan zen Santamas egunean. Gehienok ez genuen txamarrarik kendu eta Imanol Aranburu, adibidez, petoa ere polarraren gainetik jantzi zuen. Dena beharko, Imanol...





ZORIONAK EHUNE!

Ehune altzari dendak eskuratu zuen aurtengo Santamasetako Erakuslehiu Lehiaketa. Belengo estalpe benetan modernoa egin zuen Ehunek. Zorionak beraz, irudimenari!

MODELO GAZTEA

Arrasate Presseko argazkilaria ikusi bezain laster, berehala ipini zen mutikotxo tentetente, bere janzkera denori erakusteko prest. Polito!



ENKANTE ARRAKASTATSUA

Euskadiko behi piriniotarren enkantea egin zen Santamas egunean, Gipuzkoako Herri Behi Elkartek eta Euskadiko Pirenaika Federakuntzak antolatuta. Arrasateko Udalak ere diruz lagundu zuen. 27 behi jarri ziren saltzen eta guztiak erosi ziren. Dena den, behi bakoitza baino gehiagok mina hartu zuen kamioian gora eta behera ibiltzean.



LAN ETA LAN

Ez dakigu gu han geundelako izan zen edo ez. Kontuak kontu, lan eta lan ibili zen Angel Ledo eibartarra galtzear dagoen damaskinatua nola egiten den erakusten.



XABIER MENDIGUREN (KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA)

“Erdal munduan alit

Itzultzaile eta interpretari moduan oso ezaguna da Xabier Mendiguren. Orain, berriz, Euskararen Kontseiluko idazkari nagusia denez gero, are eta gehiago. Sei urte egin zituen Arrasaten euskara eta euskal literatura irakasten, Arrasate Hizkuntza Eskolan eta Irakasle Eskolan. Egun hauetan herrian izan dugu AED sarietan epaimahaiko lanak egiten.

— Hogeit bat urte badira Arrasate utzi zenuela. Nola ikusten duzu orain?

— Aldatua, baina hoberrako. Biziago ikusten dut. Lehen agian langileagoa zen eta monastegi kutsu handiagoa zuen. Gaur egun, berriz, orekatuago ikusten dut. Niretzat esperientzia aberasgarria izan zen Mondragoen bizi izan nuena eta oso oroitzapen onak ditut hemen bizi izandako urteez.

— Zer da Kontseilua?

— Izen osoa Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua du eta euskara bultzatzeko elkarteen bilgune bat da. Dagoeneko 57 elkarte ari gara lanean. Euskal Herriaren osotasuna azpimarratu nahi dugu. Oso kontuan hartu nahi ditugu bai Nafarroa eta baita Iparralde ere. Guretzat euskara batasun bat da eta bere osotasunean landu nahi dugu. Eta hori lortzeko akordio politikoak eta sozialak bilatu nahi ditugu. Hori da oraingo kanpainaren funtsa.

— Zer ikusirik du Bai Euskarari kanpainak orain hogeit urte egin zenarekin?

— Gure goiburua da “XXI. Mendeko Akordioa. Bai Euskarari”. Bi atal ditu. Oraingoa eta lehengoa. Bien artean lotura dago. Nahiz eta azken urte hauetan aurrerapen

handiak egin diren, oraindik ere Bai Euskarari esan beharra dago. Horrekin batera, mezu berezi bat transmititu nahi dugu: gizarteko egiturak euskalduntzen saiatu behar gara. Euskaraz ikasten duten gazteek ez badute aukerarik gero euskaraz hitz egiteko, alperrik gabiltza. Eta hori elkarte bakoitzak egin beharko du. Lortzen badugu

gure plan estrategikoan berrehun edo hirurehun elkarre inplikatzeko, jauzi kualitatibo izugarria izango da.

— Zer aldatu da, euskarari dagokionez, urte hauetan?

— Euskara bera aldatu da. Aurten betetzen dira 30 urte euskara batzen hasi zela. Baserri eta

Sinestuta gaude adostasunaren bidea emankorragoa dela neurri ezartzaileena baino. Kontuan izan, gainera, euskaldunak ez garela gehiengoa.

tu asko behar dugu”

arrantza giroko hizkuntza izatetik, hiri girokoa bihurtu da. Esparru berrietara zabaldu da eta lehen esaten ez genituen gauzak esaten ditugu. Euskarak nahiko ondo prestatu du bere burua. Baditugu zalan-tzak, baina pozik gaude ikusten dugulako euskara gizarte-arekin batera aldatzen dela eta jende asko, erdaldunak ere bai, prest dagoelako euskaren etorkizunean parte hartzeko. Badakigu Iparraldean eta Nafarroan egoera ez dela hain ona, baina espero dugu EAEn egiten ari garen bidea zabalduko dugula beste herrialdeetara ere.

— Zein da Kontseiluak bultzatzen duen Bai Euskarari akordioaren helburu nagusia?

— Konpromiso bat eskatzea gizarte eragileei. Lehenengo eta behin, jendaurrean aitortzeko prest daudela

euskara bultzatzeko eta bigarrenik, gertu daudela beren esparruan hori lortzeko pausoak egiten hasteko. Sinestuta gaude adostasunaren bidea emankorra dela neurri ezartzaileena baino. Kontuan izan, gainera, euskaldunak ez garela gehiengoa. Erdal munduan aliatu asko behar dugu.

— Zenbat erakunde sinatuko dute akordioa?

— Hasieran 30 bat erakunde handi eta esanguratsu izan litezke izenpetzen dutenak. Denboraz, baina, 200-300 era-

kunde bildu nahiko genituzke.

— Nolako erantzuna eman dute orain arte?

— Gizarte erakundeetan oso aldekoa. Ez bakarrik euskaldunak dituzten erakundeetan. Komunikabideetan ere, handietan nahiz txikietan, erantzun ezin hobea jaso dugu. Gogoan izan 200 batzorde ari direla Euskal Herrian, lanean dabiltzan milaka lagun biltzen dituztenak. Kanpaina honen arrakasta neurri handi batean haiei zor zaie. Finantza erakundeek eta enpresek ere oso erantzun ona eman

digute. Dena kontuan harturik, 300 milioi pta.ko kanpaina duen kostua egiten ari gara.

— Lanordu baten ordain-saria eskatu duzue enpresetan. Zer helbururekin?

— Akordio sozialaren aldeko ekintzak finantzatzeko. Euskararen neurgailua eta plan estrategikoa sortu nahi ditugu. Hori lantzeko harremanetan gaude Siadeco, Ikei eta LKS enpresa espezializatuekin. Langileei dirua eskatu diegu, baina baita enpresarioei ere, hauei langileek ematen duten parekoa jartzea eskatuz. Dirua sindikatuen eta enpresarioen elkarteetan bidez jasoko dugu. Kooperatibetan egiten ari da. Bestelako enpresetan, aldiz, urtarrian eta otsailean zehar egingo da. Dena den, dirua ematerik ez dutenentzako ekitaldiak ere antolatuko ditugu, guztiak baikara protagonistak. ■

Hasieran 30 bat erakunde handik sinatuko dute akordioa, baina denboraz 200-300 erakunde bildu nahiko genituzke

MENDIZABAL



GABONAK
ONDO
OSPATU!

okindegia

Kalebarren, 10 • Tel.: 943 75 20 91
Balegieta, 6 • Tel.: 943 75 13 99
SORALUZE

Sebero Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60
ARRASATE

Lora

bar

ZORIONAK

ETA URTE BERRI ON!!!

Pilota txapelketako finalak

Pilotak egun handia izan zuen joan den larunbatean. Santamasetako eskuz banakako pilota txapelketako finalak jokatu ziren orduan. Benjamin B mailan Bolinaga izan zen txapelduna eta A mailan ere aritu zen arren, Gorkak jantzi zuen txapela, 22 eta 8 nagusituz.

Alebin B mailan txapela Castillorentzat izan zen, 22 eta

10 irabazi baitzion Lakuntzari. A taldean garailea Jimenez izan zen 22 eta 10 Gozaloren aurka.

Haur mailako norgehiagokak izan ziren azkenak. A taldean Unai 19 eta 22 irabazi zion Arrietari. Bigarren norgehiagoka Uribarrenen alde erabaki zen, 22 eta 12, Agirrerren aurka.

Bestalde, eta Gasteizen

jokatu den El Corte Ingles eskuz binakako txapelketak txapeldun berriak ditu. Aramaioar bat eta arrasatear bat nagusitu ziren. Unai Uribarrenek eta Josu Errastik 22 eta 9 gailendu zituzten Barandiaran aramaioarra eta Juantxu arrasatearra. Txapelketako finala Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatu zen.

Txapela Aretxabaletara

Igandean Corazon de Encina zentruan Santamasetako X. Xake Txapelketa jokatu zen. Hamar taldek hartu zuten parte eta garaipena iazko txapeldunak eraman zuen: Aretxabaletako laukoteak, hain zuzen ere. Bigarren Castro Urdialesetik etorritako xakelariak gelditu ziren. Hirugarrena, berriz, Donostiako Fomento Cultural laukotea izan zen. Andres, Hernando, Villar eta Tornay arrasatearrak laugarren gelditu ziren.

San Andres Xake taldekoek preferente mailako Gipuzkoako ligako norgehiagoka ere izan zuten. Azkoitian aritu ziren Hernando, Arriaran, Tornay eta Ruiz eta 3,5 eta 0,5 garaitu zituzten azkoitiarrak. Jadanik 10. tokian daude sailkapenean. Lehenengoak aretxabaletarrak dira.

Arte martzialen erakustaldia

Musakolan arte martzialen erakusketa egin zen larunbatean. Arrasateetik Aikido eta Judo taldeak aritu ziren, Legazpiko Jiu-Jitsu eta Bilboko Shaolin taldeekin batera. Laugarren aldia zen erakusketa egiten zela, baina ez zen jende asko bildu.



Ilusio handiz hartu zituzten garaikurrak pilotariek.

Kroseko txapela korrikalari beteranoek eraman zuten

Santamasetako XX. krosa jokatu zen joan den igandean. Eguraldia ez zen lasterka egiteko aproposena izan, baina korrikalari ugari gerturatu ziren irteera puntura. Koadrilen arteko krosa Deba Garaiko taldeen artean jokatu zen. Dena den, banakako lasterketan urrutitik etorritakoa ere baziren. Hirugarren saria eskuratu zuena esaterako, Beratik etorria zen. Baina herriko korrikalariak izan ziren nagusi banakako las-

terketan. Emakumeetan Marijose Gil nagusitu zen eta gizonezkoetan, berriz, Javier Mentxaka. Seniorretan Alaitz Perez de Arenaza izan zen lehena eta gizonezkoetan, berriz, Joseba Larrinaga.

Koadrilen sailkapenari dagokionez, lehenengo Bai Euskarari izenekoa izan zen. Bigarren Musakola eta hirugarrena Herritarak.

 **AKELARRE**

- Etxean egindako turroiak
- Polboroiak
- Mazapanak
- Giraltxea
- Trufak
- Gabonetako tartak

Zarugalde, 54 Tel.: 943 77 00 71

 **AGUSTIN**

Automobilaren karburazioa eta elektronika

Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58

Urteko azken norgehiagoka

Partidarik irabazi gabe segitzen du Arrasate Eskubaloi taldeak. Joko ona praktikatzen dute Benarndo Balerdi-ren mutilek, baina hori ez da markagailuan behar bezala erreflejatzen. Larunbatean ere ondo aritu ziren mondragoetarrak. Norgehiagoka nahiko berdinduta hasi zen eta lehen zatian, etxekoak markagailuan aurreratzea ere lortu zuten. Bigarren zatian gazteak atera ziren jokalekura, eurek ere jokatzeko aukera dute eta. Baina kanpoko taldeak hobeto ekin zion bigarren zatiari eta 6 goleko errenta izatera pasa ziren. Partidaren amaiera aldera, gainera, Mikel Loiti jokalaria mondragoetarra kale-ratu zuen epaileak eta El Pilarrekoen defentsa gogorrak garaipena eman zien, nahiz eta bukaeran etxekoek 3 gol sartzea lortu zuten. Azken emaitza 20 eta 24 izan zen, El Pilar taldearen alde.

Denboraldi hobea egiten ari dira gazte eta haur mailako taldeak. Asteburu honetan gazte mailakoek 17 eta 18 garaitu zituzten Beasaingo

CAF taldekoak. Haur mailakoek, berriz, berdinketa lortu zuten Andoingo Leizaran taldearen aurka. 20na berdindu zuten. Bi taldeak sailkapeneko lehen tokian daude eta datorren urtean ere horrela jarraitzeko asmotan dira, biek ere 1999a arte ez baitute izango norgehiagoka gehiagorik.

Gabonetan Arrasate Eskubaloi taldeak hiru talderen arteko txapelketa bat jokatu du, ea datorren urteko norgehiagoketan zorte hobea duten.



Joko ona erakutsi zuten etxekoek, baina emaitza kontrakoa izan zen.

Saskibaloi taldea geroz eta hobeto

Ligako 9. garaipena eskuratu zuten Arrasate Saskibaloi taldeak joan den larunbatean Atarrabiako Ursulinas taldearen aurka. Arrasatearrak izan dira Atarrabian garaipena lortu duen lehenengo taldea. Gainera, Ursulinas taldea sailkapeneko bigarren tokian dago eta Zesar eta Danelen taldekideen garaipena garrantzitsua izan da erabat. Hasieran galtzen hasi ziren, baina bere-

hala aurre hartu zuten markagailuan. Atsedenaldira 3 puntuko aldeaz heldu ziren Danel eta Zesarren taldekideak, 29-32. Bigarren zatian talde mondragoetarra zonakako defentsan jarri eta hegalekoen jaurtiketei esker, 50-51ko emaitza lortu zuten 15. minuturako. Azkenean 58 eta 61 garaitu zituzten Atarrabikoak. Garaipen honekin Arrasate Saskibaloi taldeak ia ziurtatu-

rik du 2. mailara igotzeko ligaxkan parte hartzeko txartela. Asteburu honetan jai izango dute eta urtarrilearen 9an ekingo diote berriz ere ligari.

Datorren larunbatean, abenduak 26, Oñatiko kiroldegian, Arrasate Saskibaloi taldeak Arabako Euskal Unibertsitateko selekzioa izango du aurrez aurre, Oñati Saskibaloi taldeak antolatuta duen Gabon Txapelketan.

**ONDO IGARO GABON ZAHARRA
ETA URTE BERRI ON!!**



Iturriotz, 12 • ARRASATE



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA

Hondakindegia Alternatiborako Zaintzaile bat
kontratatu behar da behin behinerako

Beharrezko titulazioa: Eskola-graduata, Lanbide Heziketa 1 edo baliokidea

Eskariak eta dokumentazio osagarria abenduaren 30erako aurkeztu behar dira arratsaldeko 15:00ak baino lehen Deba Garaiko Mankomunitatean.

Arrasate Pasealekua, 5 beheka • ARRASATE

Tel: 943 79 33 89/943 79 33 99

Euskal Kulturaren XV. azoka abian

Otso ona duen Txanogorritxo

Arrasaten badugu gure Liburu eta Disko Azoka partikularra. Aurten XV. edizioa izango da, eta beste behin ere Txaxilipurdi arduratu da azoka prestatzeaz eta aurrera eramateaz. Euskararen alde egiten duten elkarteen materiala jendearen eskura jartzeaz gain, euskal liburu, disko eta ikusentzunezko produktuak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Joan den larunbat arratsaldean zabaldu zenetik, mondragoetar asko hurbildu dira Euskal Liburu, Disko eta Bideo Azokara, baina jendeak, oro har, ez ditu produktuak erosten. Sebero Altubeko lokaletan literaturan eta musikan izan diren berrikuntzak aurki daitezke.

Azokak 15 urte betetzen duen honetan, bada berrikun-




Gabonetako opariak erosteko aproposa, Liburu eta Disko Azoka.

tzarik, Haur Literaturaren txokoa, hain zuzen ere. Seberoko ludotekan kokatuta dago eta umeen artean irakurketa sustatzea du helburu nagusi. Gainera, "Ekon" taldeko partaideek dendatxo bat jarri dute azokan bertan, Arrasateko rock talde batzuen produktuak saltzeko. Azokak joan den larun-

batean ireki zituen ateak, eta etzia arte zabalik egongo da Sebero Altuben frantzizkotarrak duten lokaletan. Ordutegia honako hau da: goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:30etatik 20:30etara. Beraz, Durangora joateko betarik izan ez bazenu, hemen duzu aukera, herrian bertan.

Igande arratsaldean Amaia antzokira hurbildu ziren hurrek "Txanogorritxo"ren bertsio interesgarria ikusteko aukera izan zuten. Izan ere, mondragoetarrek ikusi ahal izan zuten bertsioa oso beselakoa da. Otsoa pertsonaia ona da, eta ez ditu neska txikia eta bere amama irensten. Are gehiago, otsoa Txanogorritxoren laguna da, eta magia egiten laguntzen dio. Era berean, Txanogorritxoren aita da etxekolanez arduratzen dena.


Dagoeneko urte eta erdi daramate lan hau antzetzten. Horregatik, batzuetan euskaraz eta bestetan gaztelaniaz aritzen dira. Orain arte pozik daude jendeak egin dien harrerarekin, baita mondragoetarrek egin zietenarekin.



WERU®
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

Ehune

Apainketa



*Etxe Txukuna
Txoko Kuttuna*

zorionak !

Otalora, 21

Tel: 943 77 11 48

ARRASATE

Olentzero lehiaketa

Arrasate Pressen X. urteurrenean, urte hauetan publizitatea Mondragoeko astekarían egin dutenei eskerrak emateko eskutitz personalizatuá egin nahi izan dute astekariko publizistek. Postaleko argazkia erabakitzeko, ordea, Arrasateko ikastetxe guztietako eta Almeneko 3tik 12 urtera bitarteko haurren artean lehiaketa bat egin dute.


Guztira 1.500 marrazki jaso dituzte, eta orri hauetan ageri direnak adin bakoitzeko irabazleak dira. Marrazki irabazleak Txatxilipurdiko arduradunek hautatu dituzte.

Txikilandian 50 edo 100 marrazki onenak erakusgai jarriko dituzte. Ikusten duzuen

gisan, era guztietako marrazkiak ageri dira: Olentzero espazioan, Olentzero menditik jaisten, ohean lo goxogoxo... Ezaugarri bakarra dute komunean argazkiek: Olentzero.



Ahinitze Errasti
11 urte - Almen Ikastola



Amaia Errasti
10 urte - Almen Ikastola

Joxe Mari Gallastegia

Joxe Mari Gallastegia irabazi du Olentzero marrazki lehiaketa. Joxe Mari 9 urte ditu eta San Franzisko Xabier ikastolan ari da ikasten.

Joxe Mari marrazki honen irabazle da. Bere marrazkiak gainera marrazki guztien artean Olentzeroaren irudiak erabiltzeko

Iñigo Merino

7 urte - La Merced Ikastola



Gorka Lete


11 urte - Erguin Herri Eskola



Itziar Lopez de Berio

10 urte - San Viator Ikastola





Godea Errasti
8 urte - Almen I kastola



Irene Lasaga
3 urte - Umezaintza

Arabazlea

Joxe Mariri en
arabazle honen
alean dena
Bere aitaren
mezuatu du
arabazleruan
joan nahi ari

zaio Olentzerori.

Joxe Mariri asko gustatzen zaio marraztea, eta alearen azalean bere marrazkia agertuko zela jakin zue-nean poza sentitu zuen.



Markel Mangana
6 urte - San Viator I kastola




Mireia Tena
4 urte - SFX I kastola

Oihana Aranbarri
5 urte - SFX I kastola



TXIKILANDIA 99



ARRASATEN
Musakolako Kiroldegian
Urtarrilak 2, 3, 4 eta 5



ORDUTEGIA:
Goizez 11etatik 2etara
Arratsaldez 4etatik 8etara

ANTOLATZAILEA



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

BABESLEA



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIRAT.	8	8	0	0	50	17	16
PEPELUS	8	7	1	0	33	18	15
LONTXO TAB.	8	6	2	0	52	14	14
AC SURKOS	8	6	1	1	49	30	13
INSERT COIN	8	6	0	2	26	23	12
XHASSS UGARTE	8	5	1	2	52	33	11
ALDIBI	8	5	0	3	46	15	10
KOMANDO ALPAR.	8	4	1	3	47	22	9
LEYA	8	4	0	4	21	23	8
KE OXTIAS	8	3	0	5	30	25	6
SAUKE. SCREAM	8	3	0	5	30	25	6
BALON ROJO	8	2	2	4	18	40	6
REX 23	8	2	0	6	22	40	4
SERENGETI HC	8	2	0	6	16	38	4
BUKANAK	8	2	0	6	20	49	4
ALAI GOZOKIAK	8	1	1	6	22	39	3
MAKAI	8	1	0	7	18	48	2
ROTOR BOLBO.	8	0	1	7	16	60	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	8	7	0	1	69	16	14
AURRERA BOLIE	8	7	0	1	39	18	14
KKJAURI	8	6	2	0	43	21	14
IRATI STS	8	6	1	1	50	20	13
NARANJA MEC.	8	6	1	1	69	28	13
GARAJE OSKAR	8	5	1	2	39	21	11
LOS HEREDIA	8	5	1	2	22	29	11
KOKA JUNIORS	8	3	2	3	25	28	8
DKB	8	3	1	4	34	29	7
AT CELAYA	8	3	1	4	34	29	7
ZOTZ	8	2	2	4	36	35	6
DIEGO ANTONIO	8	2	2	4	24	38	6
LAUTERBRUNENN	8	1	3	4	22	38	5
BORROCK & ROLL	8	2	1	5	20	27	5
POTOSORRI	8	2	0	6	19	63	4
ATERPE KAFETEGI.	8	1	1	6	20	50	3
PUB ARROGOI	8	1	0	7	7	27	2
ETXE MOBEL	8	0	1	7	15	56	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	7	7	0	0	39	12	14
DRIBLING	7	5	2	0	33	20	12
AITA MENNI 2010	7	5	2	0	33	20	11
EPEH	8	4	3	1	34	27	11
JOTAKABAU	8	5	1	2	17	16	11
SOKOAKOAK	8	5	0	3	29	27	10
POTROAK	7	4	1	2	31	20	9
TOTEM	8	4	0	4	27	19	8
FRAGEL GOL	8	3	2	3	25	25	8
BRANKA TAB.	7	2	3	2	29	27	7
DECADENCIA	8	2	3	3	18	15	7
BAR NUEVO	7	2	2	3	22	23	6
KAMASUTRA	7	2	1	4	28	25	5
BETRAYER	7	2	1	4	21	27	5
JAKO AL REY	8	1	2	5	24	31	4
CONSTRUC. LUSO	8	0	0	8	11	49	0
EUSKO LABEL	8	0	0	8	17	54	0



Emaitzak

A TALDEA

Bukanak 4 - Balon Rojo 6
Lontxo Taberna 15 - Rex 23 2
Insert Coin 6 - Ke Oxtias 3
Sauke. Scream 4 - Alai Gozoki. 1
Orlando Piratas 7 - AC Surkos 5
Rotor Bolbo. 2 - Kom. Alpargat 19
Xhaasss Ugarte 9 - Makai 4
Leya 3 - Pepelus 4
Aldibi 7 - Serengeti HC 2

B TALDEA

Borrock & Roll 0 - Aterpe Kafe. 1
DKB 5 - Etxe Mobil 1
Los Heredia 1 - Naranja Mec.14
Aurrera Bolie 4 - Txantxiku Kir.9
Garaje Oscar 3 - Koka Juniors 6
KKJauri 9 - Diego Antonio 6
Lauterbrunnen 1 - Pub Arrogio 0
Potosorri 2 - Irati STS 11
AT Celaya 1 - Zotz 5

D TALDEA

Construc. Luso 2 - Betrayer 3
Potroak 5 - Fraguell Gol 5
Dribling 7 - EPEH 7
Decadencia 2 - Branka Taberna 2
Sokoakoak 1 - You Know 5
Totem 8 - Eusko Label 0
Jako al Rey 2 - Aita Menni 2010 6
Jotakabau 2 - Bar Nuevo 1

Iruzkinak

Bai euskarari

Asteburu honetan ez da norgehiagokarik jokatu Zaldibarren, ez eta Iturripen ere. Jai izango dute. Baina ez da oporrak aurrez hartzeagatik. Bai Euskarai kanpainagatik izango da.

Abenduaren 26an, Euskal Herriko bost estadiotan egingo da Bai Euskarari kanpainaren jaialdi erraldoia eta Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaileek, ekimen horrekin bat egin nahi izan dute. Hori dela eta, Bai Euskarari Zaldibarren ere! kanpainarekin bat egingo dute Bonba Taldieko kideek eta txapelketako jokalariz guztiek. Autobusa ere jarriko da Mendizorrotzara joateko.

Bi talde gutxiago

Datorren urtean bi talde gutxiago arituko dira txapelketan. Borrock & Roll eta Pub Arrogio taldeak txapelketatik kanpo gelditu ziren norgehiagokara ez joategatik. Hori dela eta, euren aurka jokatzeko tokatzen zaien guztiek 1 eta 0 irabazten dute. Horri esker, 8. jardunaldian ere bi taldek garaipena eskuratu zuten: Aterpe Kafetegia eta Lauterbrunnen. Bi talde hauek B taldean ari dira, baina jardunaldi honetan puntu bat lortu duten arren partidarik jokatu gabe, ez zaie askorako balio izan. Izan ere, bi talde hauek bost puntu baino ez dituzte eta sailkapeneko 12. eta 13. tokietan daude, hurrenez hurren.

Punturik gabe

Puntu asko dituzte taldeak daude, baina badira lehen faseko ekuadorrera heldu garenean punturik gabe dauden taldeak ere. Bi dira egoera horretan aurkitzen diren taldeak: Construcciones Luso eta Eusko Label.

Bi talde hauek ez dute norgehiagokarik irabazi orain arte eta aurka sekulako gol pila daukate. Portugaldarrek 49 gol dituzte aurka eta Eusko Label, berriz, 54. Triste-triste aurkitzen baita ere Etxe Mobil eta Rotor de Bolbogrado. Biek puntu bana dute eta hauek ere Olentzeroren opariaren zain gelditu beharko dira, datorren urte arte.

Urtarrila



Udal langileek kendu zituzten txabolak.

Ijitoei txabolak kendu eta laguntzaile bat ipini

Urtarrilaren 12an udal langileak ijitoek anbulatorioaren atzealdean eraikitako txabolak kentzen hasi ziren. Hala ere, hamar ijitoek ez zuten Arrasate uzteko asmorik erakutsi. Horregatik, toki berean geratu ziren bizitzen, baina furgonetetan.

Blanca Roncal Ongizate batzordeburuak adierazi zuen udalak ez zuela etxebizitzarik edo diru laguntzarik emateko asmorik. "Udaletxean laguntza eskatu ahal izango dute, baldin eta herrian erroldatzea erabakitzen badute". Horrela

egin ez gero, sei hilabete geroago udalak edozein arrasatearri eskaintzen dizkion laguntzak eskatzeko aukera izango luketela gogoratu zuen Roncalek.

Urtarrilaren bukaera aldean, berriz, udalak etxe laguntzaile bat kontratatu zuen Zaldispeko parkinean bizi ziren ijitoen sei haurrak garbitzeko. Helburua zen umeei garbitzeko ohitura irakastea eta bide batez, eskolara garbi joatea. Ijito portugaldarren haurrak San Andres herri eskolara joaten dira.

Arrasaten 126 familia bizi ziren pobrezia laguntzari esker

Joan den urtean 126 familiak jaso zuten pobrezia laguntza Arrasaten.

Guztira 29 milioi pta behar izan ziren pobrezia programan sartutako laguntza emateko. 25,5 milioi pta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zituen. Arrasateko Udalak, berriz, ia lau milioi.

Bi eratako diru laguntzak eman ziren: pertsona behartsuei ematen zaiena. Gipuzkoako Foru Aldundiak eman zien, lehentasuneko beharrak asetzeko. Udalak, berriz, errentak eta etxeko mantenimendua ordaintzeko ditua eman zuen. Laguntzak urte osoan ziren. Langanbe artean eta guraso bakarrak diren emakumeen artean eman ziren laguntza gehienak.

Aupa Alaves!

"Orain lehen legez... Aupa Alaves!" izenburua zuen erreportajea eskaini genion Alaves taldeari Kopan Real Madrid ahaltzua kanporatu eta gero. Orduan jakin izan genuen 19 mondragoetarrek jokatu izan dutela Alavesen, horietatik 17 oraindik bizirik daudenak. Ale polita izan zen, oroimen gazi-gozoz beterikoa. Alavesen urtea izan zen. Mallorcarekin erori aurretik, Coruñaako Depor ere kanporatu egin zuen. Bigarren mailako lehena izan ostean, lehen mailara igotzea lortu zuen.

Ezusteko galanta

Urtarrilaren 23an suak hartu zuen Otalora kaleko etxe bat. Unerik larrienak bizi izan ziren Hasier eta Aitor anaia txikiak harrapatu geratu zirenean, umezainarekin batera, laugarren solairuko etxebizitzan baten. Azkenean Zubillagako suhiltzaileen eskaileretan jaitsi behar izan zituzten, salbu eta onik.

Txernobil

Deba Garaiko hainbat gurasok Txernobil Lagunak elkartearen sortu zuten. Elkartearen helburua da Txernobilgo umeei denboraldi batez hona etortzeko aukera ematea. Aurreko udan hamabi neska-mutiko etorri ziren.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



OPIL OKINDEGIA

DONIBANE-PAPVR

GOZOTEGIA

Hurbil zaitez eta dastatu gure ogi eta pastel bereziak!

Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 943 79 80 50 • ARRASATE

Otsaila

Euskadiko Kutzaren Iturriotzeko bulegoa erabat kiskalita

Otailaren 14an, larunbata, goizeko 00:10ak izango ziren Iturriotz kalean eztanda batzuk entzun zirenean. Zenbait lekukoren arabera, gazte moztortu batzuek molotov koktelak jaurti zituzten Euskadiko Kutzak Iturriotz kalean duen bulegoan.

Auzotarrak berehala hasi ziren sua itzaltzen. Suhiltzaileak iritsi zirenerako, erdi itzalita zegoen. Beheko solairua erreta geratu zen. Bigarrena, Lagun Arok daukana, kez bete bai, baina ez zuen kalte handigorik izan. Hirugarrenak ere ez zuen bestelako kalterik izan. Hala ere, han bizi den familia atera behar izan zuten, zer gerta ere. Kalteak 40 eta 50 milioi pta ingurukoak izan ziren.



Hauxe izan zen Iturriotzeko bulegoak jaso zuen hirugarren eraso.

Astelehen goizeko 08:30etan Euskadiko Kutzak ireki zuen bulegoa, baina Zerkaosteta aldean. Bulegoko hamar lagunak estu-estu sartzen ziren. Iturriotz kalekoa izan zen Euskadiko Kutzaren lehen bulegoa eta dagoeneko hiru eraso jaso ditu.

Erreketaren ostean, bestalde, hainbat ertzain Biona tabernan sartu ziren baten baten bila. Bionako jabeen esanetan, tentsio handiko uneak bizi izan ziren, ertzainen jarreragatik. Horren aurrean Ertzaintzak ez zuen iradoki-zunik egin nahi izan.

Arrasaten 38 HIES kasu antzeman dira

HIESa agertu zenetik EAEn, 38 kasu antzeman dira Arrasaten. Eusko Jaurlaritzaren HIESari Aurrea Hartzeko eta Kontrolatzeko Egitasmok adierazi zuenez, batez beste

urtean hiruzpalau kasu berri agertzen dira.

Hemen antzemandako kasu guztien artean %76 gizonak ziren eta %24 emakumeak. Batez beste 28 urte

zizuten gaisotasuna antzeman zitzairenean.

Gehienek aitortu zuten, %82k, drogak hartzen ari zirela harrapatu zutenean HIESa.

Obus bat Muxibarren

Otsailaren 9an gerra denborako obusa aurkitu zuten Muxibar baserriaren atzealdean. 200 milimetroko kalibrekoa, metro bat luze eta 40 kilokoa. Ertzaintzaren artezilariek ezandarazi zuten.

EPPk ISO ziurtagiria jaso

Mondragon Eskola Politeknikoak ISO 9001 kalitate ziurtagiria lortu zuen. Bera izan zen ziurtagiri hau eskuratu zuten unibertitate bakarra.

Zazpi domina karatean

Saioa Karate Eskolak zortzi ordezkari bidali zituen Gipuzkoako Karate Txapelketara eta zazpi dominarekin itzuli.

Pedrotxo hurbiltzeko

Arrasateko Udalak osoko bilkura berezia egin zuen otsailaren 23an, Pedro Guridi "Pedrotxo" preso arrasatearraren osasuna dela eta, herritar zenbaitek egindako eskaria aztertzeko.

EAJk, EAK, HBk eta EBk mozioaren alde bozkatu zuten. PSOEek eta PPK, aldiz, kontra.


Elisabeth, haurrentzako kirol jantzidendak
GABON JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON
opa dizkizu
ZORIONAK!

Elisabeth

Gainera orain zure erosketarekin parte hartzeko aukera izango duzu urtarrilaren 10ean jokatu den **REAL SOCIEDAD-SALAMANCA** futbol partida palkutik ikusteko 2 sarreraren zozketan.

ZORTE ON!

Araba Etorbidea, 18 • ARRASATE • Tel: 943 77 14 86




Martxoa

Aurrejubilazioak kolokan

Martxoaren lehen astean argi gorria piztu zen Arrasateko kooperatiba gehienetan. Jakin izanenez, ordutik aurrera Espainiako Gizarte Segurantzako Institutuak ez zuen onartuko aurrejubilaziorik autonomoentzat. Beraz, 60 urterekin erretiratzeko asmotan zeuden autonomo askok eta askok beste irtenbide bat bilatu beharko zuten.

Ordua arteko legediak onartzen zien autonomoei 60 urterekin erretiroa hartzea, nahiz eta horretarako zenbait baldintza ezarri: lehena zen 1967. urtea baino lehen kotizatzen hasi izana; bigarrena, berriz, azken bost urteetan bakoitzaren enpresak kotizazio bereziak egitea, 65 urterekin erretiratuz gero kobratuko zuen %90



Arrasateko kooperatibista asko daude aurrejubilatzen planetan.

kobratu ahal izateko.

MCCn bakarrik 1.000 eta 1.500 langile egon zitezkeen aurrejubilazioaren zain eta Lagun Aron gehiago.

Honen guztiaren berri jakin bezain laster, kooperatibak eta zenbait alderdi politiko lanean hasi ziren, Madrilen gauzak oker ez zitezen.

Unibertsitate ituna

Mondragon eta Deustuko unibertsitateek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Kalitatea lantzeko konpromisoa hartu zuten. Baita unibertsitate biek dituzten ezaugarrietan sakontzekoa ere.

Goardiako farmaziak

Osakidetzak debekatu egin ziren Arrasateko eta Bergarako botikarioei ordua arte egiten zuten legez, bi astez behin goardiako txandak egitea.

Alde zaharra monumentu

Eusko Jaurlaritzak multzo monumentalala izendatu zuen Arrasateko alde zaharra. Hori dela eta, udalak arkeologia ondareak izan beharko dituzten hirigintzako plan orokorrean eta alde zaharrean lanak egin behar direnean.

Unai Zubikarai hil zen

Martxoaren 13an Unai Zubikarai hil zen, Gourgs Blanc mendia jaisten ari zela, Pirinioetan. 24 urte zituen eta eskarmentu handiko mendizalea zen.

Arrasatek 2.000 bizilagun galdu ditu 15 urtean

1981ean Arrasatek 26.279 bizilagun zituen. Harrezkero biztanleak galtzen doa: Azken errolda egin zen urtean 24.257 bizilagun zituen. 2.022 bizilagun gutxiago, beraz. Zergatik biztanle galtze hori?

1990etik aurrera, heriotzak jaiotzak baino gehiago izan dira. Gazte asko Aretxabaletara eta Eskoriatzara joan izan dira etxebizitzak merkeagoak daudelako han. Beste batzuek, berriz, beste

nonbaiten erroldatu dira, bigarren etxea hantxe erosi dutelako.

20.000 bizilagunetik behera jaitsiz gero, udalbatzak lau zinegotzi gutxiago izango lituzke.

LONTXO TABERNA

Olarte, 12
ARRASATE
Tel.: 943 77 14 91

URTE BERRI ON!!



Era guztietako artikuluak ile apaindegietarako

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Takoi

ZAPATA KONPONKETAK
GILTZEN KOPIAK

Kalealdea, 2 behea (Larreako etxeak)
Tel.: 943 79 84 95

Apirila



Fagorreko Kontseilu Sozialak prentsaurreko ugari eskaini zituen.

Aurrejubilazioak zeudenetan uztea onartu zen

Apirilean zehar Partido Popularrak kooperatibista eta langile autonomo askori aurrejubilazioa hartzea eragozten zien erresoluzioa aurkeztu zuen Espainiako Kongresuan. Horren arabera 1967. urtea baino lehen Gizarte Segurantzari kotizatu dioten langile autonomo, kooperatibista, etxeko langile, nekazari eta atzerrian lan egindakoen, ezin izango zuten 60 urterekin jubilazioa hartu. Madrilgo Kongresuak, ordea, atzera bota zuen erresoluzio hori, apirilaren hasieran.

MCCren kasuan 3.300 langile inguru aurrejubilazio barik geratuko lirake erresoluzioa onartu izanez gero. Honekin batera, langile horien seme-ala-

bak, beranduago hasiko lirake lanean. Arrasateko kooperatiben zuzendaritzak bide juridikoak zabaldu zituen egoerari aurre egiteko. Fagorreko Kontseilu Sozialak, ordea, bide politikoak ere jorratu zituen, UGT eta CCOO sindikatuekin eta Madrilgo Parlamentuko taldeekin harremanetan jarritz. Kontseiluaren ekimenez, Izquierda Unidak mozio bat aurkeztu zuen martxoaren 31n Diputatuen Kongresuan. Alderdi guztien aldeko botoekin, aurrejubilazioak zeudenetan uzteko mozioa onartu zuen Kongresuak. Gobernuak, 1967a baino lehen kotizatu duten langile autonomoek aurrejubilatze aukera izango dute.

Elgeako parke eolikoaren aurkako ekimenak

Deba Bailarako mendizale elkarteak, Besaide barne, Euskal Mendi Federakundean eta EKI eta Eguzki taldeak, Elgeako parke eolikoaren kontra azaldu ziren apirilaren 21ean, Arrasaten egindako prentsaurrekoan. Taldeek interes ekonomikoak ekologikoen gainetik ipini direla salatu zuten. Elgean lehen aldi batean 40 haizerrota ezarriko dira Mugarriluzetik Mugarrihandiraino. Honek, Euskal Mendi Federakundeko ordezkarien arabera, hegaztien sufrimentua ekarriko luke "Urkulun Gipuzkoako urhegaztien koloniarik garrantzitsua baita. Gainera, gure leku ederrenetariko bat galtzeko arriskua dugu, ia sinbolikoa den energia kopurua lortu ahal izateko". Mendizaleek eta ekologistek Elgeako proiektua berriz ere aztertzea eskatu zuten. Apirilaren 26an mendi ibilaldia egin zuten parke eolikoaren kokatuko den ikusteko.

Pilotalekuaren proiektua

Apirilaren amaiera aldera aurkeztu zuen Udalak Ferrialekuko pilotalekuaren proiektua. LKSk landu duen proiektuaren aurrekontua 458 milioi pta.koa da eta adjudikazioa hiru zatitan egingo da. Ia 1.200 lagunentzako lekua izango du pilotaleku berriak, frontoi handia eta bi pilotaleku txiki berotzeko, besteak beste.

Mikel Otxoari omenaldia

Apirilaren hirugarren astean, Bonba Taldiek antolatuta, Errealeko jokalariek egon ziren Arrasaten, Mikel Otxoari omenaldia egiteko. Herriko plazan jendetza handia bildu zen futbolari txuri-urdinak ikusteko asmoz. Omenaldian, Errealeko jokalariek eta Igor Arenaza Eibarreko jokalariek opari sorta egin zioten Mikeli.

Guridi txapeldun

Iban Guridik Txakur Leren Nazioarteko Lasterketan bere mailako lehen saria eskuratu zuen apirilaren 5ean Bergaran. Laugarren aldiz joan zen Iban Gorka ibilibidean parte hartzea eta aurten saria eskuratu zuen.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

EKLIPSE



Erropak, tatuajeak,
piercing-ak,...

Biteri Etorbidea, 15
Tel.: 943 77 02 69

Maiatza

AEDren 15. urteurrena

Ametsa Eraikiz Doa lelopean ospatu zuen Arrasate Euskal Dezagun euskara elkarteak bere hamabosgarren urteurrena. Maiatzaren 23an eta 24an ospatu zen jaialdiaren aurkezpen ekitaldia Arrasaten eta Donostian egin zuten AEDko kideek, maiatzaren 14an.

1983ko azaroaren 29an sortu zen AED eta ordutik "arrasatearrentzako bilgune eta etorkizunean elkarlanerako oinarri" izaten jarraitzen du. Maiatzaren 24an Amets Gaua ospatuko zen eta musika ekitaldi ugari egon ziren Monterronen. DJak, herriko rock taldeak eta proiektzio birtuallak ikusi ahal izan ziren Impak-



Bi egunetan zehar ospatu zuen AEDk hamabosgarren urteurrena.

tes Visual taldearen eskutik. Igandea, berriz, familia guztiarentzako jaia izan zen. Goizean goizetik dantzariak aritu ziren kaleak alaitzen. Hiru

zonalde egokituko zituzten AEDkoek eguna pasatzeko eta ekitaldiak ere hiru guneeetan banatu zituzten. Jokin Zaitegi, Biteri eta Zaldibarren.

Bigarren mailatik kanpo

Arrasate Saskibaloitza taldeak ezin izan zion eutsi bigarren mailari. Azken norgehiagoka etxean izan zuten mondragoetarrek, baina 74 eta 87 galdu zuten orduan sailkapeneko liderra zen Patronato taldearen aurka. Gauzak horrela, mondragoetarrek maila galdu zuten eta 98-99ko denboraldia 3. maila edo erkidegoko lehenengoan ari da.

Andres Castillejo Errealera

Hamalau urteko mondragoetarra fitxatu zuen Errealak maiatzean. Andres Castillejo haur mailan ari zen jokatzen Mondra taldean, baina 98-99 denboraldia Errealeko elastikoarekin hasi zuen. Erdiko atzelari moduan jokatzen zuen Arrasateko taldean. Aurretik Aretxabaleko Uda tadean ere jokatu zuen.

"Bernar" film laburra amaituta

Jon Anduezak bere bigarren film laburra bukatu zuen maiatzean. "Laugarren gale-riatik" egin ondoren, beste abentura honetan sartu zen produktore mondragoetarra eta bere hitzetan "bidean zalantza ugari eta depresio puntu bat ere izan nuen. Batzuetan badirudi gauzak ez daudela zuk nahi moduan. Baina orain, lana eskuartearen, pozik nago".

Gorka Zufiaurre eta Miren Gojenola izan ziren film laburraren protagonistak. Jonen bigarren lan honetan Down sindromea duen mutilaren gorabeherak kontatzen dira. Filmarekin sari ugari eskuratu ditu Jonek. Azkena abenduan izan zen, baina aurretik Elcheko Nazioarteko bideo eta zine lehiaketa eskuratu zuen, besteak beste.

San Andres 2.

San Andres Xake taldea bigarren sailkatu zen Gipuzkoako Xake Txapelketan. Hernandok, Tornayk, Mayok, Ortegak eta Villarrek osatu zuten talde arrasatearra txapelketan zehar.



Espezialitatea:
menua - karta

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

ALDAPE
Taberna



EGUZKIGRAF
inprimategia

Industriaidea F-0-4
Hnoa: 791844
Faxa: 792944

ARETXABALETA

Ekaina

Portugaldarren aurkako agindua

Ekaina hasieran Arrasateko Udalaren Gobernu batzordeak Zaldispen bizi diren bi familia portugaldarrei hamabost eguneko epea eman zien handik alde egiteko. Gobernu kideek Arrasateko Udaltzaingoak egindako txostenean oinarritu ziren erabakia hartzeko. Agindua emateko arrazoi nagusienak portugaldarrak ez dutela Zaldispe garbi uzten eta euren furgoneta eta trasteekin aparkatzeko kela gutxitu dituztela izan ziren.

Ekainaren 3an ordea, SOS Arrazakeriak udalaren jarrera eta batez ere alkatearena salatu nahi izan zuten. Portugal-darrak herriko erroldan egoteko behar diren baldintza guz-

tiak betetzen dituztela argitu zuen SOS Arrazakeriak, baina erroldan sartzeko egin zituzten bi eskariek ez dutela erantzunik jaso ere salatu zuten. Hori zela eta, udalak legearen kontra jokatu zuela salatu zuten SOSekoek. Ondoren etorri ziren alde egiteko beste agindua eta alkatearen aurkako epaiketa.

Azkenean, SOS Arrazakeriak Jose Mari Loiti alkatearen aurka jarritako salaketa ez onartzea eta kasua artxibatzea erabai zuen Bergarako epaitegiak. Portugal-darrak Zaldispen segitzen dute eta SOS Arrazakeriak eta Caritas, eurentzat balio duen etxebizitza bila hasi dira.



San Joan parrokiako lanak amaituta

Ekainaren 13an, larunbata, ireki zituen ateak San Joan Bataiatzailearen parrokiak. Inaugurazio ekitaldira Jose Maria Setien gotzaina etorri zen. Elizbarrua jendez gainezka egon zen, Kanpoan, berriz, Senideak taldeko lagun batzuek presoak gogoratu zituzten eta gutun bat eman zioten gotzainari.

1992an hasi zen mamitzen Arrasateko parrokia zaharberritzeko asmoa eta lehen lanak 1994an hasi ziren. Lanak uste baino bi urte lehenago amaitu dituzte, 600 milioi pta. koaurrekontuarekin.

Autobusak dohainik

San Andres, Musakola eta Erguin herri eskoletara joateko dohaineko autobusak onartu zieten Hezkuntza Ordezkaritzak. Neurri horrekin arduradunek eskola publikoetan haur gehiago matrikulatzea espero dute.

Bidezko merkataritza

Hirugarren Munduko garapen proiektuetan lan egiten duten gobernu kanpoko bost erakundek "Harreman" dendazabaldutuzten ekainaren 1ean Arrasateko Hiper Eroskin. Garapen bidean dauden lurraldeetako produktuak saltzen dira dendan.

Zubizarretari epaiketa

Ekainaren 23an, Xabier Zubizarreta HBko zinegotzia Bilboko epaitegian epaitu zuten 1996ko Gudari Egunean izandako istiluentatik



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Uztaila

Ortega Lara kasuaren epaia

Auzitegi Nazionalak 32 urteko espetxe zigorra ezarri dio Ortega Lararen bahiketan parte hartu zuen ETAKide bakoitzari, fiskalak eskatu legez. Epaiketa joan den ekainaren 10ean hasi zen Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Ortega Lara ez zen epaiketan, osasunarentzat kaltegarria izan zitekeelakotan. Lau auziperatuek —Josu Uribetxebarria, Xabier Ugarte, Jose Luis Erosteği eta Jose Migel Gaztelu— onartu egin zuten bahiketan parte hartzea. Euren arrazoirik nagusia gobernua ez zuela ezer egiten presoan egoerari buelta emateko.



Arrasate Musikaleko banda, Eduardo Arzamendiren zuzendaritzapean.

Arrasate Musikalek 50 urte

Juventud Deportiva de Mondragon zenaren barruan zegoen garai batean. 70. hamarkadan hainbat arrasatear musika eskola baten alde hasi ziren lanean. Gehientsuenak Denok Abesbatza taldeko kide izanak ziren. Beste batzuk, berriz, udal bandakoak.

1972ko irailean izendatu


zuten lehenengo lehendakaria (Jose Maria Agirreurreta) eta urte berean Metalurgica Cerrajeraren lokalak lortu zituen. 1974an Donostiako Kontserbatorioko zenbait irakasle hasi zen irakasten, eta 1975eko urtarrilaren 15ean Arrasate Musikalen estatutuak onartu ziren.


Ane Lopez de Bergara Europara

Ane Lopez de Bergara igerilaria Italiara joan zen uztailaren 26an hasi zen Europako Hegats Txapelketa-jokatzerara. Espainiako txapelketaren ondoren hautatu zuen Espainiako hautatzaileak. Txapelketa horretan Anek Espainiako errekorra lortu zuen 1500 m.etan. Italiako Pescara hirian jokatu zen txapelketa honetan 1.500, 800 eta 400 m.etan hartu zuen parte.

MCC eta ASLEren hitzarmena

MCCk eta ASLEk, Euskal Herriko Elkarte Laboralen Batasunak, elkarlan hitzarmena sinatu zuten uztailaren 8an. Hitzarmenaren ekitaldian Jabier Retegi Industria, Arrantza eta Nekazaritza-sailburua eta Sabin Intxaurraga Lan sailburu berria izan ziren.




OPEL 

TAKOLO AUTOAK

OPEL FRONTERA BERRIA!

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

S. Carrascal S.L.



Hemen egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak
- Etabar

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

Fabrikari erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82

OPARI DESBERDIN BAT EGITEKO MULTIOPTICAS-en IDEIAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

Gabon zoriontsuak · Urte Berri On · Gabon zoriontsuak · Urte Berri On

Prezioa 15.150
GABONETAN 12.125

Prezioa 16.820
GABONETAN 11.900

Prezioa 5.450
GABONETAN 3.575

Ibiltariarentzako podometroa

Prezioa 12.500
GABONETAN 8.900

Barruko eta kanpoko termometroa, kable gabe eta erloju iratzargailua

Prezioa 17.500
GABONETAN 12.200

Prezioa 5.710
GABONETAN 5.710

Gabon zoriontsuak · Urte Berri On · Gabon zoriontsuak · Urte Berri On

Prezioa 14.580
GABONETAN 10.500

Prezioa 14.280
GABONETAN 10.300

Prezioa 14.580
GABONETAN 10.500

Prezioa 17.340
GABONETAN 12.900

GABON HAUETARAKO OPARI EZAZU RAY-BAN

Betaurreko batzuk erostegatik "Definitely 1999" Ayenda bat lotuko duzu

R.P.S. N° 42/06



- ITURGINTZA OROKORRA •
- BAINU ALTZARIAK •
- MANTENIMENDUA •
- BEROGAILUAK •
- AIRE GIROTUA •
- GASA •

ERAKUSKETA:

Gipuzkoa Etorbidea 39, behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 01 85 Mugikorra: 919 41 44 44



ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75

Abuztua

Goikobalu Argentinan

Goikobalu abesbatzako 62 lagunek abuztuaren 4an Argentinarako hegazkina hartu zuten. Hemezortzi egun egin zituzten han, eta hamai-ka kontzertu eskaini. Iparral- detik hegoalderaino mugitu ziren, eta Iguazuko urjauziak eta Brasilgo hainbat leku ere ikusi zituzten.



Euskal astea Ortonovon

Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeak Italian izan ziren abuztuaren Ortonovo-ko herrian. Italiarrek sekulako harrera ona egin zieten.

Ortonovo eta Arrasate- ren arteko harremanak orain duela hamalau urte hasi ziren.



Hiru hildako istripuz

Abuztuaren 6an Aitor Arana 30 urteko aramaioarra hil zen Peruko mendietan: 80 metroko amildegri batean erori zen. Aitorrek taldea utzi zuen 6.800 metroko mendatea bakarrik igotzeko.

Abuztuaren 26an Francis- co Horrillo eta bere alaba Guadalupe, auto istripuan hil ziren Legution. Guadalupe Arrasateko PSEko zinegotzi Paco Garcia- ren emaztea zen. Francisco, berriz, aita. Zeramatan furgone- ta errekarara erori zen.

Eraikuntzak behera

Abuztuaren zazpi eraikuntza bota ziren behera. Zaldispe- ko tren geltoki zaharreko bilte- gia bata. Agerre eta Pablo Urangako kaleetan beste bi eraikuntza bota ziren. Gaine- rakoak Ferrerías, Iturriotz eta Zarugalde kaleetan zeuden. Azken eraikuntza hauen aurre- aldeko paretak ez zituzten bota, hirurak ere XVII. men- dekoak ziren eta.



**Parques
y Jardines**

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Iraila

Lapurreta Legarren

Irailaren 2an, goizeko 05:30ak aldean, lapurrak sartu ziren Elkorok Legarren duen dendan. Hollywoodeko estiloan, furgoneta bat erabili zuten eskaparatea apurtu eta denda sartzeko. Txikizio izugarria eragiteaz gain, musika kateak, telefono mugikorrak, bideo kamerak eta bestelako tresna elektronikoak ere eraman zituzten.



Legarreko Elkororen denda honelako egoeran gelditu zen.

Pagoaga anaiak atxilotuta

Irailaren leian Frantziako polizia —DNAT Terrorismoaren Aurkako Zuzendaritza Nazionala— sarekada handia egin zuen Lapurdiko hainbat herritan, ustez ETarekin zerikusirik zuen hainbat pertsonaren kontra. Operazioa egiteko agindua Lorence Le Vert epaileak eman zuen. Guztira hamalau lagun atxilotu zituzten, tartean Jose Mari eta Enrike Pagoaga anaia mondragoetarrek, Hendaian atxilotuak. Biharamunean, oster, polizia frantsesak Hendaia mugara eraman zuen Jose Mari eta aske utzi zuen. Irailaren 4ko gauean, beriz, Enrike aske gelditu zen Madrilgo Auzitegi Nazionaletik pasatu eta gero.

Jose Mari eta Enrike, Jose Manuel Pagoaga Peixotoren anaiak dira. Iparraldean, Latinamerikan eta Afrikan bizi izan dira, iheslari eta kalerratu gisa.

Espainiako Barne Ministerioak adierazi zuenez, atxiloteta hauek ETaren azpiegiturarekin zuten zerikusirik.

Plazaola txapeldun Artzain Txakur Txapelketan

Jesus Mari Plazaolak, Udako artzainak, Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketa irabazi zuen irailaren 13an. Txapelketa Mandubiako zelaian jokatu zen eta Plazaolak *Artzai* izeneko txakurrarekin hartu zuen parte txapelketa horretan.

Bizitokirik gabe

Zaldispeko familia portugaldarrei irailaren 18an bukatu zitzaizen bizitokia uzteko epea. Arrasateko Udalak 3. aldiz eman zien bizitokia uzteko agindua. Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eta beste 30 inguru elkartek familia portugaldar hauek eroldan sartzeko duten eskubidea defendatu zuten prentsaurrean.

Kultura etxea Ospitale Zaharrera

Monterongo kultura etxea txikiagi gelditu dela eta, irailan jakin genuen ospitale zaharrera pasatuko duela Udala kultura etxea.

Gaur egun hortxe daude ludoteka, gaztetxea eta hainbat talderen egoitzak.

Dena den, irailean oraindik aurre proiektua onartu gabe zegoen.



Pavimentos AGR
AROSZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20



DISCOPOLIS

DISKO KONPAKTOAK • KASSETTEAK • BIDEOAK • OSAGARRIAK
BERRIKUNTZAK ETA KATALOGO ESKAINTZA ZABALA
Juan Carlos Gerra plaza, 1 behea • ARRASATE
Tel.: 943 - 77 02 13

Urria



Maritxu Kajoi

Urrian ezin ahaztu dezakegu mondragoetarren jai nagusietariko bat: Maritxu Kajoi. Orain 20 urte inguru txikiteroen "omenezko" jaia eratu eta ordutik, bere izena euskal geografian zabaltzen joan da.

Istiluak udaletxean

Ez zen istilurik falta izan herrian urrian zehar. Batetik, Zaldispén bizi ziren ijitoei eroldan sartzeko baimena ukatu egin zitzaizen. Ondorioz, SOS Arrazakeriak alkatearen kontra prebarikazio salaketa jarri zuen. Bergarako epaitegiak "alkateak legearen gainean egiten duen interpretazio okerra, arbitrarioa eta are diskutigarria" zela esan arren, ez zuela prebarikazio deliturik egin erabaki zuen. Ondorioz, Zaldispéko ijitoak Zaldispetik joateko hirugarren agindua luzatu zuen udalak.


TITO PERCAZ

Inoiz baino lanuzte eta greba gehiago izan ziren udaletxean Tito Percáz arkitektua kaleratzeko hartutako erabakiaren ondorioz. Udaleko pertsonal batzordearen esanetan, arkitektu ona izan arren eta Hirigintza Sailak aldeko txostena egin arren, jende asko kexatu omen zen Tito Percázen jendaurreko jarreraren ondorioz. Haren lankideak, berriz, zeharo babestu zuten Tito salaketan aurrean. Azkenean, hala ere, kalera joan zen.



Tito Percáz.

Legebiltzarrerako botoen bilakaera Arrasaten



Hauteskundeak

EH eta PP izan ziren Legebiltzarrerako hauteskundeetan Arrasateko irabazle nagusiak. EHk 1994an baino 1.061 boto gehiago lortu zituen eta PPK 870 boto gehiago.

Baina hirugarren irabazle bat ere izan zen: jendearen parte hartzea. Azken hauteskundeetan baino %11 handiagoa izan zen.

Idazkari berria

Asko harritu gintuen udal-tereko idazkari berriak. Izan ere, 24 urteko neska gazteak hartu zuen Iñakiren tokia. 11 lagun artean, Ainhoa Gue-naga Munduate irundarrak gairiditu zituen gairiditu beharrekoak.

Industria hitzarmena

Deba Garaiko Industrialdea izenarekin, Bergarak, Aretxabaletak, Oñatik eta Arrasatek industria bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten. Foru Aldundia eta SPRILUR ere proiektuko partaide dira.

Botikarioen auzia

Arrasate eta Bergarako botikarioei goardiak txandakatzea debekatu zitzaizen, baina sententzia errekurritu zuten. Ondorioz, Arrasate eta Bergarako udalek, botikarioen kontra egingo dute auzitegian

Azaroa

ARKOren III. Jardunaldiak

Bi egunez, herri-aldizkarien kalitatea landu zen Mondragoen. 120 lagunek parte hartu zuten, ARKOk antolatutako III. Jardunaldietan. LKSk Olandixon daukan egoitza nagusian, herri-aldizkariak nola hobetu aztertu zen bi egunetan zehar. Hamazazpi adituk, ondorengo gaiak jorratu zituzten: diseinua, publizitatea, irakurleen leialtasuna irabazteko metodoak, hizkuntzaren zuzentasuna, hurbiltasunak herri komunikabideetan eragindako presioak, edukiak, kalitate kontrolak, herri telebistak eta teknologia berriak.

Aurreko urteetan bezalatsu, laguntzaile garrantzitsuak izan zituen Arrasate Komunikabideak, ARKOK, III Jardunaldi hauek antolatzeko. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Kutxa eta Gertu inprimategia.

Jardunaldiak, Arrasate Pressen 10. urteurrena zela aprobetxatuz egin ziren.



Ostirala eta larunbata izan ziren Jardunaldiak egiteko hautatutako egunak.

Institutu berria

Kooperatibismoaren baloreak gorde eta garatzeko institutua sortu zen. Mondragon Unibertsitatearen baitan jaiotako ekimenak, kooperatibismoa erakutsi nahi du. Hone tarako, kooperatibismoaren baloreak ezagutu, ikertu, gaurkotu eta hedatzea du xede. Mondragon Unibertsitatearen nortasuna finkatu nahi da egitasmo honekin.

Kooperatibismoaren Unibertsitate Institutua (KUI) ize-na hartu du ekimen berri honek.

Film laburrak

Euskarazko bi film eta gaztelaniazko lau eman zituzten film laburren emanaldien barruan: "Bernar", "4. galeriatik" euskaraz eta "Libre indirecto", "Parabellum" eta "Cien maneras de hacer el pollo al chilindrón" gaztelaniaz. Euskarazko bi filmak Aitor Agorriak, Jon Anduezak eta Xabier Alberdik eginitako dira. Sarreraren batutako dirua, Aita Mennin dagoen Jabilorentzat izan zen.

Haurrak hautesle

Irudi ez ohikoa ikusi genuen Arrasaten azaroan. Izan ere, 8-11 urtera bitarteko haurrek botoa eman zuten. 1989. urtean Genevan onartu zen Nazio Batuen Hitzarmenean jasotako haurren oinarriko 12 eskubideen artean haurrentzat garrantzitsuena zena aukeratzea zen asmoa. Mondragoen, familiak irabazi zuten.

Ia zortzietan haur arrasatearrek hartu zuten parte hauteskunde berezi hauetan.




unicef

Datorren urterako diruak

3.491.306.713 pta. Hauxe izan zen datorren urtean udalak gastatzeko onartu zuten diru kopurua. Iaz baino 194.793.974 pta. gehiago izan ziren. EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoekin onartu zen. Era berean, EBk kontrako botoa eman zuen eta HB absenteitu egin zen. PP, bestalde, ez zen han izan.

Es Lu
ileapaindegia

Tel.: 943 79 37 88 • ARRASATE



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Abendua



Miriam Conde mondragoetarra Arrasate Pressekin batera jaio zen.

Zorionak Arrasate Press!

Duela 10 urte, astekaria sortu zen Mondragoen AEDren babesean. Bi kazetari, publizista bat eta zortzi laguntzailerekin hasi zen *Arrasate Press* eta 1.200 laguni bidali zitzaien. Ordutik hona, makina bat aldaketa ikusi izan ditu bere baitan: maketazio

aldaketak, egoitza aldaketak, jende desberdina, kolorea... Kontuak kontu, herritarrentzat ohitura bilakatu da *Arrasate Press* ostiralero etxean jasotzea eta arrasatear askok eskertzen duten zerbitzua eskaintzen du herri aldizkari honek.

Udalbatza presoen alde

Senideak elkarrekin mozio bat aurkeztu zuen euskal presoek eskubideak aldarrikatzen. Aspaldiko partez, EAJ eta EA hirutariko gobernutik aldendu eta EB eta HBrekin batu ziren gai hau onartzeko. Honela bada, Mondragoeko udalak, euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eskatu zuen; zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak eta gaixotasun sendaezina dituztenak askatzea, abenduaren 31n herri bakoitzean izango diren mobilizazio ixiletan parte hartzea eta sakabanaketak iraun bitartean, presoek senideei diru laguntzak emateko aukera ere aztertzea.

Giza Eskubideen 50. urteurrena

Hilabete honetan, Giza Eskubideen aldarrikapenaren 50. urteurrena ospatu zen. Bai eskolako gazteek zein herritarrek, hainbat ekitaldi antolatuz egun osoan zehar egun hau ospatzeko.

San Nikolas

Umetan guztiok atsegin izan dugun eguna da haxe. San Nikolasi kantua abestu eta goxokiak zerutik behera bolaratzen. Hori gozamenaz gatzetxoentzat!

Horra gure Pantxika!

Aurtengo Santamasak ere joan dira. Asteburuan hasi eta osteguna arte ekitaldi ugari izan dira herriko giroa bizi-bizi jarritz. Hori bai, protagonista nagusia, txerria noski!

Zorionak eta Urte Berri On!!

GANBARA



*Enmarkazioak
Berriztatzeak*

Zabaldu berria

**ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!**

Udala enparantza (Erguin, 2 - behea)
Tel.: 943 79 38 23



Oraingo honetan, Santamasa sak ekarri nahi izan ditugu Fotozaharreko atal honetara. Hori bai, oraingoan hain aspaldikoa ez den argazkia ekarri dugu: orain zortzi urtekoa hain zuzen ere.

Juan Garai zena eta Pello Urizar dira argazkikoak. Txintxo-txintxo, *Arrasate Press*-ek Gabonetarako atera zuen urtekari potoloa saltzen aritu ziren jaiegun berezi honetan.


Argazkia:

Juan Jose Uriarte "Bermi"

Berriematea:

Arrasate Press

Etxe Aundi
Hotela**  Jatetxea



**Gaur ez bada, bihar ezkonduko zara ...
Etxe Aundin zure zain gaituzu.**

**Ospatu zeure ezkontza Etxe Aundi jatetxean
(250 laguntzako aretoak)**

Kontsulta itzazu 1998rako menu berriak, ezkontzako opari batekin txundituko zaitugu

Torrauzo, 9 • OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Faxe: 943 78 32 90



Urte Berri honen atarian
nire lankide guztien izenean
eta nirean, Bakea eta
Zoriona opa dizkizuegu.

Jose Mari Barrutiabengoa
Aldibi Autoak-eko gerentea



VOLVO



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxe: 943 79 65 65



ZORIONAKI!

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

